

2017KO ABENDUKO EFEMERIDEAK

(Ordu guztiak denbora unibertsalean eman dira. Ordu bat gehitu ordu ofiziala kalkulatzeko)
Poloetan kokatutako edozein punturen batazbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 0 Km/h
Ekuadorean kokatutako edozein punturen batazbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 1.668 Km/h
Donostian kokatutako edozein punturen batazbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 1.220 Km/h

BEHAKETA PROPOSAMENAK

-Begi hutsez:

-Hilaren 7an, 21:00etan, Eta Aquilae izar zeifeidarraren distira maximoa; magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 7,177 egunean behin. Hilaren 15an, 22an eta 29an izango dira beste maximoak.

- Hilaren 1an, 08:00an, Perseoko Algol izar aldakorraren distira minimoa. Magnitudea 3,3tik gertu. Hilaren 3an, 6an, 9an, 12an, 15an, 18an, 21an, 23an, 26an eta 29an izango dira.

-Hilaren 5an, 17:00etan, Delta Cephei izar aldakorraren distira maximoa. Magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 5,366 egunean behin. Hilaren 11an, 16an, 21an eta 27an izango dira beste maximoak.

-Hilaren 6tik aurrera, zodiakoaren argia ikus daiteke, hego-mendebaldeko zeruertz gainean, Capricornio eta Acuarion. Kometek ekliptikaren inguruan utzitako hauts partikula mikroskopikoz osatuta dago. Udazkenaren amaieran eta neguan, gauaren amaieran ikus dezakegu Europatik, eta gauaren hasieran berriz udaberrian.

-Hilaren 16tik Aurrera, Zodiakoaren argia aurkitu dezakegu gauaren amaieran, Ekialde hego-ekialdeko zeruertz gainean, Libra eta Virgon, Marte eta Jupiter dabilzan lekuan.

- Prismatiko edo Teleskopioarekin:

-Hilaren 2an, Jupiterren lau ilargi Galileatarrak ikus daitezke hurrengo ordenean planetaren mendebaldean: Europa, Io, Ganimeses eta Calisto.

-Hilaren 15an, Europa, Ganimeses eta Calistok osaturiko triangulu bat ikus dezakegu Jupiterren mendebaldera, lo ekialdean dagoen bitartean.

-Hilaren 28an, Jupiterren lau ilargi Galileatarrak ikus daitezke berezko ordenean planetaren ekialdean: Io, Europa, Ganimeses eta Calisto.

ILARGIA ABENDUAN

02 21:34tan, konjuntzio geozentrikoan Pleyadeekin, 9^ora.

03 13:13tan, konjuntzio geozentrikoan Tauroko Aldebaran izarrarekin, 0,8^ora.

03 15:47tan, Ilbetea.

04 08:46tan, Perigeotik pasatuko da, Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik txikiena 357.492 km (aurreko apogeoan baino 48.640 km gutxiago). Ilbetearen gertutasunak, marea biziagoak sortuko ditu.

08 00:38tan, Goranzko nodotik pasatuko da.

08 23:17tan, konjuntzio geozentrikoan Leoko Regulo izarrarekin, 0,7^ora.

10 librazio maximoa longitudean ($l = 7,4^{\circ}$). Apeninoen mendikatea iparretik hegora behatzeko aproposa.

10 07:51tan, Ilbehera.

13 02:33an, konjuntzio geozentrikoan Virgoko Spica izarrarekin, 6,8^ora.

13 19:23tan, konjuntzio geozentrikoan Marterekin, 4^ora.

14 16:58tan, konjuntzio geozentrikoan Jupiterrekin, 4,1^ora.

18 06:30tan, Ilberria.

19 01:26tan, Apogeoetik pasatuko da. Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik handiena: 406.603 Km. (aurreko perigeoan baino 49.111 km gehiago).

22 10:04tan, beheranzko nodotik pasatuko da.

24 13:43tan, konjuntzio geozentrikoan Neptunorekin, 1,4^ora.

26 09:20tan, Ilgora.

27 librazio minimoa longitudean ($l = -7,9^{\circ}$). Clavius kraterra behatzeko egoera ezin hobea.

27 20:57tan, konjuntzio geozentrikoan Uranorekin, 4,3^ora. Ilargiaren argitasunak, planeta ikustea galarazten du.

30 08:44tan, konjuntzio geozentrikoan Pleyadeekin, 9,1^ora.

31 00:39tan, konjuntzio geozentrikoan Tauroko Aldebaran izarrarekin, 0,7^ora.

PLANETAK IRAILEAN (LURRAREN ORBITA-ABIADURA: 107.280 km/h)

Merkurio (20tik Aurrera ikusiko dugu, gauaren amaieran) orbita-abiadura 172.440 Km/h

Behe konjuntzioan hilaren 13an, Hilaren 20tik Aurrera ikusi ahal izango dugu, ekialde hegg-ekialdeko zeruertz gainean. Eguzkia baino ordu bat lehenago azalduko da, baina magnitude hain txikiarekin, prismatikoak behar izango ditugula ikusi nahi badugu. Hilaren 31an, zeruertzetik 4^ora besterik ez da igoko, eguzkia atera baino ordu eta laurden lehenago. Orduan begi hutsez ikusteko gai izango gara zeruertz garbi eta ireki baten

laguntzaz. Igoera zuzena 18h eta 17h artean, deklinazioa -25° eta -20° bitarte. Hilabetea Sagitarion hasiko du, baina Ofiucon amaitu. Magnitudea nabarmen haundituko zaio 1,4tik -0,3ra.

Artizarra (Zailtasunez, gauaren amaieran ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 126.000 Km/h

Hilaren 15aren aurretik ikusi ahal izango dugu ekialde hego-ekialdeko zeruertz gainean. Eguzkia baino ordu laurden lehenago azalduko da, ondorioz, argitasunak behaketa zailduko du. Teleskopioa edo prismatikoak ez erabiltzea gomendatzen dugu. Igoera zuzena 16h eta 18h artean, deklinazioa -20° eta -24° bitarte. Hilabetea Libran hasiko da, Escorpio, Ofiuco pasa, eta Sagitarion amaitu. Magnitudea 3,9an mantenduko da.

Marte (Gauaren amaieran ikusi ahal izango dugu) orbita-abiadura 86.760 Km/h

Eguzkia baino lau ordu lehenago aterako da hilaren 1an, eta lau ordu t'erdi lehenago 31an. Hurrengo hilabetetan itxurazko diametroa areagotuz joango da, baina oraindik ez dago kalitatezko behaketa bat eskeintzeko aukeran. Igoera zuzena 14h, deklinazioa -9° eta -14° artean. Hilabetea Virgon hasi eta Libran amaituko du. Magnitudea 1,9tik 1,7ra igoko da.

Jupiter (Gauaren amaieran ikusi ahal izango dugu) orbita-abiadura 47.160 Km/h

Eguzkia baino bi ordu t'erdi lehenago azalduko da hilaren 1an, eta lau ordu lehenago 31an, hego-ekialdeko zeruertzetik. Erraldoi honen sateliteen mogimendua teleskopioarekin behatzea errazagotuz doa. Igoera zuzena 15h, deklinazioa -14° eta -15° artean. Hilabete guztia Libran. Magnitudea -1,7tik -1,8ra areagotuko da.

Saturno (Ezingo dugu hilabete honetan ikusi) orbita-abiadura 34.560 Km/h

Eguzkiarekin konjuntzioan hilaren 21an, ez dugu berriro ikusteko aukerik izango urtarrilaren 10 arte, eguna etorri aurretik. Igoera zuzena 18h, deklinazioa -22° . Hilabete guztia Sagitarion. Magnitudea 0,5an mantenduko da.

Urano (Gau osoan ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 24.480 Km/h

Meridianotik pasako da gauerdien aurretik, 56° ko altuerara. Egoera atmosferiko egokietan, begi hutsez ikus dezakegu. Igoera zuzena 1h 32m, deklinazioa 9° . Hilabete guztia Piscisen emango du. Magnitudea 5,7tik 5,8ra jetsiko da.

Neptuno (Gau osoan ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 19.440 Km/h

Meridianotik pasako da gauaren hasieran, hegoaldeko zeruertzetik 39° ko altuerara Igoera zuzena 23h, deklinazioa -8° . Hilabete guztia Acuarion. Magnitudea 7,9an mantenduko da.

ABENDUKO BESTE EFEMERIDE BATZUK

- Hilaren 1ean, ostirala, eguerdian, 2.458.089. egun juliotarra hasiko da.
- Egunak 9 ordu eta 13 minutuko iraupena du hilaren 1ean, eta 9 ordu eta 2 minutukoa hilaren 31an.
- Hilaren 5tik 13ra, eguzkia 16:32(TU) ezkutatuko da, egun guztietan minutu berdinean.
- Hilaren 28tik Urtarrilaren 9 arte, eguzkia 07:40(TU) aterako da, egun guztietan minutu berdinean.
- Hilaren 9an, Lurrak C/1917 F1 Mellish kometak utzitako lorratza zeharkatuko du, monozerotida bezela ezagutzen diren izar iheskorak sortuaz.
- Hilaren 12an, Lurrak C/1943 W1 Van Gent-Peltier-Daimaca kometak utzitako lorratza zeharkatuko du, Sigma Hydridas bezela ezagutzen diren izar iheskorak sortuaz.
- Hilaren 14an, Lurrak 3200 Phaeton asteroideak, ustez kometa bat izan zenaren nukleo ez aktiboa, utzitako lorratza zeharkatuko du, Geminida bezela ezagutzen diren izar iheskorak sortuaz. Ilberriaren gertutasunak behaketa errazago bihurtuko du.
- Hilaren 18an, 05:30tan, eguzkia itxuraz Sagitario konstelazioan sartuko da ($266,48^\circ$).
- Hilaren 21an, astrologiaren arabera, eguzkia Capricornio konstelazioan sartuko da (270°). Zodiakoaren zeruko mugek eta izen bera daramaten zodiakoko konstelazioak ez dira berdinak.
- Hilaren 21an, Neguko solstizioa, argien gutxienekoa: 8h 50m.
- Hilaren 21an 16:28tan, eguzkiak ekliptikaren hegoaldeko deklinazio maximora iritsiko da, eta eguerdiko zeruan ez da hainbeste altxako. Abenduko solstizioa da. Negua hasten da ipar hemisferioan.
- Hilaren 22an, Lurrak 8P Tuttle kometak utzitako lorratza zeharkatuko du, 13,6 urteko periodoa duen Kometa honek Ursidas bezela ezagutzen diren izar iheskorak sortzen ditu.
- Hilaren 25an, 12:00tan, denboraren ekuazioa nulua da.